

## JOXE AZURMENDIRI BURUZKO KONGRESUA

*Biltzarra Jakin Fundazioak, EHUK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuten, San Telmo Museoren laguntzarekin, eta Joxe Azurmendi Otaegirena (Zegama, 1941) Euskal Herriko filosofozik emankorrenaren lana aztertu zen, egungo ikuspegitik, haren lanean azpimarratzekoak izanik filosofia eta politika zein kultura, literatura eta hizkuntza. Hori guztia, diskurtso labur batekin, une bakoitzeko arazoei erantzuteko gaitasunarekin, eta hausnarketa teoriko sakonetan oinarrituta. Azurmendik argitaratutako 41 liburu eta 500 artikulu baino gehiago dira horren adibide ona.*

*Abenduaren 11tik 13ra, 50 aditu baino gehiago elkartu ziren Donostiako San Telmo museoan, Azurmendiren pentsamenduaren alderdi desberdinak esplizitatu eta hainbat gai lantzeko, hala nola antropologia filosofikoa, etika, pentsamendu soziala, kooperatibismoa, naziogintza, estatugintza, kultura...*

### **Pentsamenduari eskainitako bizitza**

*EHUK nabarmendu duenez, Azurmendi bere lehen lanak argitaratzen hasi zen garaian, dena zegoen berregiteko, eta herri bat zegoen eraikitzeko. Euskal Herriak aurre egiteko zituen arazo garrantzitsuenak landu zituen eta, gainera, interes berezia agertu zuen kultura eta pentsamenduarekiko.*

*Gaztetan Arantzazuko frantziskotarren kide izan bazen ere, bere ibilbidearen zati handiena unibertsitateko irakasle gisa egin du; irakasletzako lehen urteetan Deustuko EUTGn (1978-1981) aritu zen lanean eta, ondoren, EHUn (1981-2014) jarraitu zuen bere lana, non 1993tik aurrera Filosofia Modernoko katedradun izendatu zuten. Era berean, Jakin Taldeko kide da 1960tik, eta hor filosofia eta pentsamendua lantzen duten Jakin Irakurgaiak liburu bildumaren editorea da. Euskaltzaindiko ohorezko euskaltzaina ere bada.*

*Hiru ardatz nabarmentzen dira bere pentsamenduan:*

- 1.- Euskal pentsamenduaren analisisa. Bere belaunaldikoekin batera egile tradizionalen berrirakurketan parte hartu zuen eta, horrela, euskal pentsamenduaren tradizioa erakutsi eta transmititu zuten.*
- 2.- Europako filosofiaren eta pentsamenduaren analisisa. Euskaraz landu ditu filosofia garaikidearen gai garrantzitsuenak, bere ikuspegi propio eta pertsonaletik, eta, horrek, espazio berria zabaltzen dio komunitate euskaldunari pentsamendu garaikidearen esparruan.*

3.- Uneko gai etiko-politikoei buruzko hausnarketak. Euskal Herriaren egoera sozialaren eta politikoaren aurrean, lehendabizi frankismoaren aurkako borrokan nazionalismoak eta marxismoak zuten harremana aztertu zuen, eta, ondoren, ETA, tortura, presoak eta estatu politikak izan zituen hausnarketarako gai eta, geroago, euskal nortasunaren definizio berriak.

### **AL Eren parte hartzea Biltzarrean**

Elkarteko presidente Jose Mari Larramendi zenean, zortea izan genuen Joxe Azurmendik baiezkoa eman baitzion gure gonbidapenari, guk 2014ko maiatzaren 14an egin genuen Batzar Nagusiaren bukaeran, "Arizmendiarietaren pentsamendua bere testuinguruan" izeneko txostena aurkezteko, haren pentsamenduaren oinarritzko ikuspegiak azalduz. Azurmendik batez ere nabarmendu zuenez, "haren pentsamendu filosofikoa oso sendoa da eta beti ez dago esplizitatuta... eta haren ideien azpian egonik, mila bider entzun ditugunez, topikoak direla iruditzen zaigu". Gainera, Arizmendiarieta pentsalariaren oinarritzko kontzeptuen maila teoriko filosofikoa erreibindikatu eta xehatu zuen: gizabanakoa, pertsona, komunitatea, balioen jatorria. Adierazi zigun lankidetzaren oinarriak "giza izaeran, historian, erlijioan eta elkarrekiko heziketan" daudela. Horrenbestez, Joxe Azurmendik lagundu egin du Don Jose Mariaren planteamenduen dimentsio filosofikoa identifikatzen, zeinek transzenditu egiten baitute Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren bilakaera praktikoa soziala.

Eta guztiok dakigu Joxe Azurmendik nolako ekarpena egin zion Don Jose Mariaren pentsamenduari, bi liburu argitaratuta: "Gizon kooperatiboa. Arizmendiarietaren pentsamendua" eta "Don Jose Maria Arizmendiarietaren gogoetak". Lehen liburuan Arizmendiarietaren pentsamenduaren azterketa sakona egin zuen, eta, bigarrean, berriz, haren esaerak eta hausnarketak jaso zituen, gaika multzokatuta.

Horregatik, oso garbi geneukan gure Elkartek derrigor parte hartu behar zuela Kongresuan. Eta horrela egin genuen, gure bazkide Jose Mari Larramendik "Universo de Valores de Arizmendiarieta" izeneko txostena aurkeztuta.